

# 100 urte

## IÑAKI SEGUROLA



**GURE** (beraien?) banderaren ehungarren urtea ospatu berri den honetan, pentsatzeko jarri naiz zein izan ote litezkeen ospatzailerantz txuri-gorri-berdearen bertuteak; bi erantzun datozkit burura: «ikurriñaren atzean» bizia galdutako eusko gudarien odola, batetik, eta ondorengo Diktadurak galarazi izana, bestetik, hots, iraganeko mamuak biak ere.

Ederki asmatu zuen gerora Estatuak euskoxatarraren indar apurra kamusten eta ez-deusten: nekez hutsigiten duen taktikaz baliatuz, eskuperatu eta eskuratu egin zuen, legezko bihurtu, Estatu hura hausteko sortua Estatuaren bandera bilakarako. halako moldeez non gaur egun (beraien?) ikurrin horri pixa egin edo su ematea Putaespanyako legeen kontrako delitua baita. Merkatuak ateratzen joera, berriaz, hortik honakoa: gogora ekartzeko aski produktu ikurrindunen loraldi triste hura, eta nola zeuzkaten ikurrin mordoak Korteinglesko biltegietan legeztatze-egunaren zain tolestatuak, bakoitza bere prezio-markarekin.

Bai, jaunak: laurogeitaka urte zituela utzi zion ikurrinak 'geurea' izateari. Tourreko torturagune maldatsuetan ikusten da gaur egunean ikurrinazalerik gehien, eta hori ez da batera seinale ona. Ikurrinak nekez beretzen du bihotzik: bandera gorri edo gorri-beltzen moda itzali zenez geroztik, bihuri-ustekoak ere, ikurrinaren lotsaz eta haren ordezkotzat, urrutiko banderaren bati (Kuba, Jamaika...) ederetsiak daude; euskaldun finak ere begi-tarte murrizta egiten dio ikurrinari, euskalduntasunaren soroan euskotar deuskaldunen sasia gailentzen ikusten denetik.

Nolanahi dela, ohoratuzko izateko asmatu zituzten banderak, eta hargatik maite ditugu guk guztiak suaren bazka edo errekaitarako; sugaietan aurrenekoa, horretan dudu gutxi, bandera zuri edo hutsa, denetan etsaiena.

# Nahaste-borrasteen

## TXILLARDEGI



**Ez** dut izenik aipatuko. Baina irakurleak berak somatuko ditu.

Orain dela urte batzuk, gure idazlerik famatuena 'Bi anaia' izendatu zuen bere obra bat. Eta kutsu txarra hartu zioten euskaltzale batzuek aukera horri: Euskara Batuaz 'anaia' baita hitza. Gero euskaltzain famatu batzuek kritika gogorrak egin zituzten Batuaren kontra, eta nabarmenki akordio guztietatik at hasi ziren idazten (eta horretan daude, jarraitzaile mordoak batek txaloturik).

Orain Iparraldeko idazle saiatu eta errespeta garri batek, zubereraz eman du bere azkeneko nobela; irakurle batzuegan liburua, ezintasunez, alde batera uzteko deliberoa piztuz.

Beste muturrean, Donaixitiko pastorala, Batuaz omen dator aurren; pastoralararen funtsa bera zuberera izan arren.

Hitz batez: horra hor berriro ere anomia nagusi. Desordenu eta desartikulazio horri ez baitiot 'anarkia' deitu nahi.

Batuak bere funtzioak bete behar ditu, eta euskalkiek berenak. Sánchez Carrión-en lanen ondorioz aurrerapausuak espero zitezkeen mementuan, honetan ere... atzera!

Euskara Batuari eta euskaltzaletasun osoari orain dela mende laurden bat bultzada harritgarri hura eman zitzaionean, 'anomi-zalreak' kikilduta zeuden.

Orain, berriaz, beste sintoma bat, harro harro. Eta zentzugabekeriek prentsa-ren intentsua jasotzen dute.

Noizko bigarren 'Ermuko Zina'?

## •egin

### Berlusconiaren ordagoa

Silvio Berlusconi Antonio Di Pietro eta bere taldeko epaileen azken bi urte hauetako lan izugarria lur azpira kondenatu du, hein handi batean, herenegun inposaturiko lege-dekretuarekin. Berlusconi komisio ilegalen eskandaluan burubelari sartuta zeuden bi mila politikoko eta enpresari inguru etxera bidali ditu, kartzeletatik kanpora alegia. Erabaki honekin, magnatearen garaipenak ekarri zituen asmo txarrenak gauzatu egin dira. Berlusconi Lehenengo Errepublikaren lurperatzaile bezala agertu zitzaigun, baina, azken finean, ustelkeriaren aurkako olatua aprobetxatu besterik ez zuen egin, gero —orain— benetako aurpegia azaltzeko. Ez da alfe-



Europar azkenean erabaki bat hartu zuen. Baita Felipek ere.

rik esan Bettino Craxiaren lagun-mina zela.

Berlusconi adierazi duenez, epaileak «justiziaren erabilera politikoren bidean sartu dira». Argudio hau, «estatu polizia-ko ekin nahi dut» esatea, benetan larria da Esku Garbiak operazio-ko epailek ustelkeria institu-

zionalaren aurka egindako lana ikusirik. Arriakutsua —eta totalitarioa, zergatik ez, dekretu kolpez gobernatzea eta onartzen ez bada Gobernuua utziko duela mehatzatzea horrela ulertu behar baita—, benetan, lehen ministro berriak hartutako bidea da. Aurkeko errejimena bera ere ez zen



ZULET / EL CORREO

ausartu erabaki hau hartzen. Gobernu buruak, nabarmen, Esku Garbiak operazioari atek isteko ordua iritsi zaiola esan nahi izan dio, bere burua ukituko ez ote duen helduraz beharbada.

EDITORIALA

# LUZENDARIARI

## Epaitu nazazu!

Egun, gatazkak bideratzeko sistema militarizatu eta gogorkeriazkoez baliatzen gera. Honen aurrean, gatazkak bideratzeko metodo iraultzaileak planteiatzen degu, gizakia bezain zaharra, baina kontzepzio eraberritu batekin: elkarren aurka dauden aldeerako elkarrikizketa. Inoren artean botere harremanik ezartzeke, denak berdinkatu gaitela oinarrituz hartuz, gatazkak gainditzeko akordio bideragarriak lortuko dituen denon arteko elkarrikizketen erabilera; bakezko desobediencia zibilarekin bateratua prozesu honetarako eragozpenak egiaztatzen direnean. Etorrikuneko gizarteak zutabe hauekin oinarrituko den use osoa degu. Askatasunez ageritako erizietan, kontraesan eta beste iritziak badute lekua, baina, era arrazional batean, jatoritasunez eta errespetoz azaltzen direnean, posible da ondorengo topaketa dialektikoetan, argitasun eta zentzutasuneko zirikiturik aurkitzea. Ezinbestekoa da elkarrikizketa prozesuak irekitzea; esklusibismo, hierarkia edota elkarrikizketa esperientziei koerlazio ordenarik ezarri gabe. Gogorkeria alboratzeko birtualtasuna du elkarrikizketak, horrexegatik elkarren aurka daudenen artean ezinbestekoa da elkarrikizketa eta komunikazio guneak eraikitzea, aurreritzi eta apriorismo gabe. Edonolako adierazpen bidentoen ordez elkarrikizketa mekanismoak erabilitea azpimarratzen

den ulean, ejerzitoek ez dute lekunik eta gertuago beraz sostengatzen duen derrigorrezko soldaduzk. Gaur egun ejerzitoek dabilten ihardueraren aurrean desobediencia zibila planteiatzen degu eta beroren tresna kolektibo garrantzitsu gisa Intsumisioa.

1989. urtean Intsumisioa deituriko mugimendua hasi genuenetik ez degu planteiatzen erreklamamendu militarrik ezartzen duen bigdegabeko legislazioari errefusaketa estrategia bezela soilik. Intsumisioarekin ordezko zerbitzu soziala arautzen duen marku legala ere salatzen degu, batetik, ejerzitoaren izaera eta helburuak legitimatzen dituelako eta bestetik eragozleen animularista disidentzia bideratu eta aldi berean zigortzen dituelako. Horrela, Intsumisioa, gatazkak era baikor eta baketsuan bideratzeko, bake kultura baten aldeko gure apustuaren lekuko zuzena bihurtzen da, gizarteak militarismoarekin ez kooperatze espresio modu bat. Gizarte eraldaketa, eta aldi berean, dauden gizarte balioak, beste arrazoizko eta elkartasuneko balioengatik ordezkatzea nahi degu. Azken finean, desarma eta herrien arteko lankidetzaz aldarrikatzea.

'Judizializazio zibila' deitutakoarekin, militarren irudia zuritu asmoz, gobernuak borroka kolektibo eta politikoa dena, bide pertsonal eta judizialera eramanez nahi izan du. Aldi berean, eta delitu akusazio berberarekin sententzia ezberdinak emanez, mugimen-


duaren zatiketa eragin nahi du; nahiz eta horretarako beren kontraesanak agerian jarri. Epaileek aurretik jukzaten gaituzte.

'Epaiketa-farsa' honetan parte hartzeari uko egiten diot neure presentziak beren kontraesanak legitimatuko bait lituzke eta ezer legitimizatzen epaiketari uko egitearokoa beste lagunen jarrera legitimatu nahi nuke. Nire jarrera desobediencia zibilaren beste espresio modu gisa hartzen dut, ejerzitoek lekunik ez duten justiziazko eta elkartasuneko mundu bat lortzeko nire nahiak jukzatu dituen tribunalk ez onartzen.

Epaiketen dinamika ezartzen dituen baldintzak onartzeari uko egiten diogu, eta soldaduzkari eta ordezko zerbitzu sozialari Intsumisioak planteiatzen dioten konfliktorekin soluzio baikor bat exigitzen degu. Berriro hartzen degu iniziatiba gure desobediencia arazoaren gako agerian jar dezan: ez degu nahi Intsumisioaren errepresioa biguntzen joango den erantzun judizial personalizatua. Bai aldez, Eragozpen eta Intsumisio mugimenduen izaera kolektiboa errekonozituko duen eta gizarteak hainbat eta hainbat aldez arbutatu duen derrigorrezko soldaduzkaren desagertzea eta desmilitarizazio eskakizunak jasoko dituen soluzio politikoa. Utopiak ematen digu indarra eta horretan jarraituko degu.

EDUARDO SUDUPE ARANGUREN  
Azoitza (Gipuzkoa)

# GAIA JARRITA



## Lemoiz

Txikia izanagatik gure herri zaharra, ez da edozelakoa daukagun indarra. Lemoizen dago gaur ospatu beharra, irabazi dugula gerra nuklearra.

TXABI AJURIA

# Egunkaria

Batzorde Parakeidea: 72564 E / Lege Gordailua: SS 800/90

**oj** OJDK IKUSKATUTAKO HEDAPENA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkaria: IÑAKI URÍA

Gerentea: FERMIN LAZKANO

Zuzendaria: MARTINELO OTAMENDI

Zuzendariordeak: LUZIEB ETXEZAHARRETA

Publizitateak: MARI JOSE SARASA

HEL BIDEAK

Erredakzio eta Talerra: ANTZA S.A. Industriadre 01-02 Pabituak / 20160 Lasarte-Oria. T. 37 15 45 / Fax: 36 58 93

Egilez soziala, Publizitate eta Administrazio: Antso Jakituna. 46-1 / 20010 Donostia. T. 46 91 22 / Fax: 45 59 57

Araba: San Antonoa, 20 1. ezker. / 01005 Gasteiz. T. 23 38 72 / Fax: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monasterioa, 45.13 esk. / (Iruñea dorrea) / 31011 Iruñea. T. 17 80 78 79 / Fax: 17 80 77

Bizkaia: Zaharburu Eparantzara, 2-1. ezker. / 48003 Bilbo. T. 410 40 46 / Fax: 410 37 15

Lapurdi / Nafarroa Beherea / Zuberoa: Pannecau 14. / 503 Posta kuxutilla. / 64100 Baiona. T. 59 59 35 75 / Fax: 59 25 75 11